

Presa eta Santiago, euskaldun berriak

El Mundo del País Vasco, 1991-06-28.

Fernando Presa, *Nandus*, Leoneko herritxo batean jaio zen, Euskal herrian bizi den beste asko bezala, eta euskalduna da, hemen jaiotako asko ez dena. Gasteizeko euskal kazetaria den A. Hernandezek Egunkariarako egin berria dio idazlan polita, eta ez, halere, euskaldun berria delako, ezta gaur IKAn irakasle eta antolatzaile gisa lanean ari delako ere, bizikleta gainean hamalau hilabetetan 19.000 kilometro egin dituelako baizik!

Honek zerbait esan nahi du.

Esan nahi du, batez ere, gerraurrean bezala etorkinak euskara ikastea ez dela fenomeno bakana, baizik eta nahiko arrunta egin dela. Inguramen hartatik gaurkora berrogei urteko leizezulo ikaragarri bat dago, gure herria itozteko maliziaz bete; halere, dolu luze honek ez gaitu elbarritu behar, gure azkena litzateke hau; beste fenomeno soziologikoen antzera, hemen ere itxaropena da euskarri harrigarria; predikzio txar asko gainditu du gizonak historian zehar helduleku honi esker. Nandusen exenplu honek nire esperientziako bete bat gogarazi dit: Salamancarra den Santiago Ramos irakaslea datorkit burura: gure semearen maisu zen Irungo La Sallen, eta honi euskalerriratu berrian udako laguntza klase batzuk emateko eskatu genion, gero, urtetara, alaba txikienarentzat eskari bera egin nionean, ezina zela esan zidan, oso lanpetua, baitzegoen... halere, neuk berari euskarazko klaseak ematearen truke egingo dizadakela ahalegin hau. Hala (ez nire merituz!, Santiago hizkuntzetarako iaioa baita) ikasi egin zuen, eta eskola publikoetara pasa zenean bere kabuz jarri zen bertan hurrei euskarazko klasea ematen, eta hartan ari da oraindik.